

## **2. UNITATEA: IKASTETXEAREN OINARRIZKO AZPIEGITURA**

### **Helburuak:**

- Ikastetxeak zer beharizan dituen pentsatzea.
- Hezkuntza-jarduna eta administrazioa zertan hobetu daitezkeen aztertzea.
- Ikastetxeak oinarrizko zer azpiegitura teknologiko behar dituen jakitea.
- Azpiegiturak behar bezala banatzea ikastetxean zehar.
- Azpiegituren inbentarioa egitea.

### **Edukiak:**

- Ikastetxearen premiak eta hobetu beharrak.
- Sare motak.
- Konektagarritasuna.
- Ordenagailuak eta periferikoak.
- Ikastetxearen azpiegituraren antolakuntza.

### **Irakurgaiak:**

- 1. eranskina. «Glosario de términos»
- 2. eranskina (PDF). «Conceptos generales de Ergonomía»
- 3. eranskina (PDF). «El puesto de trabajo (la persona ante el ordenador)»
- 4. eranskina (PDF). «Pantallas, calidad y salud visual»

### **Estekak:**

- Arbel digitalerako proposamen didaktikoak:  
<http://dewey.uab.es/pmarques/pdigital/es/propuest.htm>

## **1.JARDUERA:** **AMETSETAKO IKASTETXEA: PREMIAK ETA HOBETU BEHARRAK**

### **Helburuak:**

- Ikastetxearen beharrez gogoeta egitea.
- Irakasleen eta ikasleen eguneroko jarduna nola hobetu pentsatu.
- Irakaslearen jarduna hobetzeko aukerak zehaztea.
- Ikastetxearen azpiegituraren parte berri izatea.

### **Edukiak:**

1. Ikastetxeko zuzendaritzaren orientatzaile..
2. Ikastetxeko azpiegituraren osagai nagusiak.

### **1. IKASTETXEKO ZUZENDARITZAREN ORIENTATZAILE**

Ikastaro osoan, erabakiak gogoeta egin ondoren hartzeko erronka zailari eutsiko diogu. Lantzean behin huts egiten dugu, baina, orientatzaile garen aldetik, gure ustean ikastetxeentzat, oro har, egokiena dena aukeratu behar dugu.

Unitate honetan **ikastetxearen azpiegitura «fisikoa»** aztertuko dugu. **Giltzarria** da aurrerantzean egingo ditugun gauza guztietarako. Horregatik, pentsatu behar dugu nola eragin erabakiguneetan, egoera hobetzeko.

Askotan iraganak baldintzatuko gaitu, eta beti administrazioak edo ikastetxeko zuzendaritzak, baina iritzia eman dezakegu, gurasoen elkarteetan eremu askeak aurkitu... Eta hobe da jakitea eta balioztatzea zer dugun, hura hobetu ahal izateko.

Azpiegiturak baldintzatu egin ditzake geroztiko garapen asko. Hona hemen zergatik:

- «Eskeletoa» delako, **egin nahi dugun guztiaren sostengagarri eta euskarri**.
- Kostuagatik. Langileen soldatez gain inbertsiorik handienak dira, sarri askotan kalkulazinak.
- Iraupenagatik. Ahalegindu behar dugu inbertsioen erabilgarritasuna luzatzen, diru gutxiago gastatzeko eta erabiltzaileak horietara ohitu daitezen, bai arlo horretan, bai IKTen beste arlo batzuetan.
  - o Ezagunak segurtasuna ematen die erabiltzaileei.
  - o Erosotasuna beti estimatzen da, eta erakargarri da iturri bereko beste formula batzuk probatzeko.

Horrenbestez, teknologiaren bidez atal bakoitzaren eraginkortasuna areagotu egin behar da eremu guztietan.

## 2. AZPIEGITURAREN OSAGIAK

Hiru giltzarri daude:

- Konektagarritasuna: ikastetxearen eta Interneten arteko zubia.
- Sare lokala, hardware osoa, bakarra balitz bezala ibiltzeko, lotzen duen ehuna.
- Terminalak: ordenagailuak, periferikoak eta beste osagai asko, sareari atarramenturik handiena ateratzeko lagungarriak.

Hiru elementu horiek dira, edo izango dira, oinarria, hemendik aurrera egin beharreko lanei ekiteko.

Eta horiek aukeratzeko edo egokitzeko, aurretik baldin bazeuden, pentsatu behar dugu nolakoa izango litzatekeen gure ametssetako ikastetxea, eta ikusi zer daukagun eta zer behar dugun.

Kontuan izan:

- zer lortu nahi dugun
- nola lor dezakegun

Kontzeptu eta hautu horien arabera, etorkizuneko jardunak era batekoak edo bestekoak izango dira. Ikus dezagun adibide hau:

Baliabideen mugikortasunaren arabera:

Mugikortasun handia			Mugikortasun txikia		
Instalazioa	Kostua	Eraginkortasuna	Instalazioa	Kostua	Eraginkortasuna
Sare harigabeak	Kostu txikiagoa		Kableduna nahiz kablegabea	Berdina	
Ordenagailu eramangarriak	Kostu handiagoa	Barruko mugikortasun handiagoa. Ikasgelan eta etxean, nahi izanez gero	Mahaiko ordenagailuak	Kostu txikiagoa	Barruko mugikortasun txikiagoa. Ikasgelan (etxean ez).
		Denbora gutxiago eskola bakoitzean (instalazioa) eta matxura gehiago			Denbora gehiago eskola bakoitzean (instalazioa) eta matxura gutxiago

Horra hor aukera... Beste bidegurutze asko azalduko dira, eta orduan ere aukeratu egin behar...

Inprimagailuak idazkaritzan eduki, kostuak esternalizatzeko eta kontsumoak apaltzeko?

Irakasleen gelan?...

### Praktika

Sartu forora, eta azaldu ikaskideei, labur-labur, nola dauden antolatuta IKTak zure ikastetxean.

Ba al duzue informatika-gelarik, balio anitzeko gelarik, liburutegirik...?

Adierazi zure iritzia unitatearen foroan, eta irakurri eta iruzkindu ikaskideenak.

## Gehiago jakiteko

Proiektua bera eta Euskadiko etorkizuneko aurreikusiak hobeto ezagutzeko, jarraiko bi dokumentu hauek kontsultatu:

- <http://www.elkarrekin.org/>, "Liburutegia/Biblioteca aukeran, "Berri teknikoak eta Premia Plana – Noticias técnicas y Plan Premia" karpetan, "PREMIA Plana – Plan PREMIA" azpikarpetan. PREMIA Planaren sorkuntzari buruzko informazio interesgarria aurkituko duzue

- Planaren oraingo egoera eta etorkizun hurbila ezagutzeko, Hezkuntza Sailaren Intraneten informazioa aurkitu ahal duzue. VPN barruan zaudelarik, interneteko nabigatzailea erabiliz "Hezkuntzara" joan, Planari buruzko informazio asko dago.

## **2.JARDUERA: SAREAK ETA KONEKTAGARRITASUNA**

### **Helburuak:**

- Ikastetxeko konektagarritasunaz eta sareaz gogoeta egitea.
- Zer sare mota dauden jakitea.

### **Edukiak:**

1. Konektagarritasuna eta sarea, lehenbiziko erabakiak.
2. Ikastetxearen oinarritzko beharrianak.
3. Sare motak.

## **1. SAREA ETA KONEKTAGARRITASUNA**

Duela urte batzuk ordenagailu kopurua izaten genuen buruan, eskola hornitzeko. Zenbat behar ditugu? Zenbat eros ditzakegu? Zenbat emango dizkigute? Horrelako galderak egiten zituen informatika-arduradunak. Gaur egun, aldiz, sarea da oinarritzko azpiegitura. Gaur-gaurkoz, ikastetxe pribatuak ezin dute falta izan, eta ikastetxe publikoek arin bai arin eskuratzen dute. Izan ere, sarearen gainean eratzen da beharrezko informatika-arkitektura. Hartara, oraingo galdera nagusia bestelakoa da.

Erabaki horrekin batera, pentsatu eta erabaki behar dugu nolako konektagarritasuna daukagun edo eman nahi diogun sareari (gero eta bakanagoetan), nola atera atarramenturik handiena gure sareari edo nola zabal litekeen. Jakina denez, Internet oinarritzko zerbitzua da erakundeetarako eta eskoletarako, argia edo ura diren bezala. Ordenagailuak eta periferikoak geroagoko kontuak dira.

Azpiegitura hori dela bitarte, gogoeta egin behar dugu geure eta beste irakasleen irakasteko eta ikasteko metodologiaz. Eta, ildo horretatik, sarean lan egiteko eredu berriak aztertuko ditugu, aurrerago.

Azken batean, hauex da ikastetxeak ebatzi behar duen lehenbiziko auzia: sarea, ordenagailuak... zertarako? Zuzendaritzak eta irakasleek ezin badiote erantzun galdera horri, azpiegitura, lehenagokoa nahiz eskatutakoa, ez da behar bezala aprobetxatuko, eta nahigabetu egingo dira irakasleak eta ikasleak, ez dutelako jakingo zer egin harekin.

Hala eta guztiz ere, gaur egun inor ez dago sarearen «aurka». Sartu egin da gure bizitzetan, eta burugabea da hura ukatzea edo ez ikusiarena egitea. Sarea erabiltzeko tenorea da, honetarako edo hartarako erabil daitekeela pentsatzen dugun bakoitzean. Askok egin dute, eta sarean daude edo ikastaro honetan bertan laguntzeko.

## 2. GUTXIENKO BETEKIZUNAK

IKTak hezkuntza-baliabide gisa erabiltzeko, ezinbestekoak dira baliabide eta faktore batzuk:

- Sareak ikastetxeko gune nagusietara iritsi behar du, behar besteko banda-zabalerarekin (RDSI/ADSL/Modem-kablea).
- Ikastetxeek behar adina informatika-material izan behar du, ikasgeletan erabiltzeko; hau da, ikasleko PC eguneratuen, inprimagailuen, eskanerren eta besteren erlazio egokia egon.
- Internet postu bakoitzean erabiltzeko moduko barne-sarea.

## 3. SARE ETA KONEKTAGARRITASUN MOTAK

Ikastetxeko ordenagailuek elkarrekin konektatuta egon behar dute, sare lokalean, eta Internetarako sarbidea eduki.

Badira hainbat motatako sareak. Hona hemen ohikoenak:

### Ethernet sarea

Xerox-ek, Digital-ek eta Intel-ek garatutako sare lokala (LAN). LAN sarbide-metodirik erabili da (Token Ring ondoren). Ethernet bitarteko partekatuko sare lokala da. Mezuak sare-segmentuko nodo guztietara banatzen dira. Ethernet-ek 1.024 nodo komunika ditzake 10 Mb/s-ko abiadura kobrezko pare bihurrituan, kable koaxialean eta zuntz optikoan. Dena den, Ethernet azkarragoak sortzen ari dira: Ethernet konmutatu batek erabiltzaile bakoitzari 10 Mbp/s-ko kanala ematen dio. Ethernet azkar batek 100 Mbp/s partekatuko abiadura dauka.

### Sare harigabea, Wireless edo WI-FI

Sare mota horietan, erabiltzaileak sare lokalera edo Internetera konekta daitezke, fisikoki konektatuta egon gabe, sare- edo telefono-hartunerik gabe. Airean barrena dabilzan uhinen bidez gertatzen da komunikazioa, irrati-transmisoreetan edo sakelako telefonoetan bezala.



Kablerik erabili ezean diru asko aurrezten da instalazio fisiko berrietan, eta, «aurrezki» horiek berbideratu ahal izanez gero, ordenagailuak edo periferikoak eros daitezke, zaharrak ordeztzeko edo gehiago edukitzeko. Bistan denez, ordenagailu bakoitzak, kable-sareetan bezala, txartel bat (sare-txartela) behar izango du, ordenagailua eta sarea konektatzeko. Dena den, Wi-Fi sareak hainbeste zabaldu direnez, salneurriek behera egin dute nabarmen hilabete gutxian, eta ekipo askok sare-txartela dakarte fabrikatik.

Sare harigabeetan, ezinbestekoa da sarbide-puntu bat izatea (sare harigabeen arima). Sare harigabeak zabaldu egin daitezke. Nahikoa da txartela erabiltzailearen ordenagailuan sartzea eta konfiguratzea. Ez da sare-hartune berezirik instalatu behar. Gainera, edozein bisitarien ekipoa, irakaslearen edo hizlariaren ordenagailu eramangarria, PDAk (sakelako ordenagailua)... konekta daitezke, konexio-datuak aise aldatuta. Eta horrek abantaila batzuk ematen dizkigu; adibidez, ordenagailuak lekuz alda daitezke nahierara, sare-hartuneen ondoan egon beharrik gabe.



Gainera, sare lokalean integra daiteke, gehigarri edo errefortzu gisa. Hortaz, hala nahi izanez gero, ez du aurreko ezein baliabiderik ordezten.

Sistema hori arin bai arin zabaltzen ari da etxeetan eta enpresa txikietan, eta, dirudienez, merkatuko estandar nagusietako bat izango da. Kontuan izan behar dugu konexio asko onartzen dituela berehalakoan, une batean instalatzen dela (hala ere, ikusiak ikusita, zoria alde izatea ere beharrezkoa da), ekipoi ibiltariak onartzen dituela istantean...

Batzuetan oso baliagarri gertatuko zaizue eranskinetako «**Glosario de términos**». Askotan lagunduko dizue ulertzen zertaz hitz egiten ari diren edo zer irakurtzen ari garen, zalantzak argitzen... Eta aldika irakurriz gero, hornitzaileen, produktu-katalogoen edo lankide «teknozale»en hizkerara ohituko zarete.

### **Praktika**

Irakaslearen ikuspegitik, zer aukera eskain diezazkioke zure ikastetxeari Wi-Fi sareak? Ba al du lehentasunik aukera horrek etorkizun hurbilean? Adierazi zure iritzia unitatearen foroan, eta irakurri eta iruzkindu ikaskideenak.

### **3.JARDUERA:**

#### **IKASGELA/IKASTETXEA: ORDENAGAILUAK, PERIFERIKOAK ETA HAIEN BANAKETA**

#### **Helburuak:**

- Ikastetxeko irakaskuntza-estiloak zehaztea.
- Teknologia-gelen hainbat antolaeraren berri izatea.
- Ikastetxearen beharrezkoak eta hornitu beharreko guneak identifikatzea.

#### **Edukiak:**

1. Irakaskuntza-estiloa, aplikazio espaziala.
2. Teknologia-gelen ereduak.
3. Sarea ikastetxean.

### **1. IRAKASKUNTZA- ESTILOAK**

Ederki, dagoeneko heldu gara irakasleek eta ikasleek zuzenean erabiliko dugun azpiegiturara. Badakigu nola komunikatzen diren beren artean gure makinak.

Hona hemen hainbat ikasgela-eredu. Ikasgela hauek hainbat pedagogia-ereduri dagozkie, eta irakaskuntza eta ikaskuntza ulertzeko hainbat molde dituzte oinarrian. Hori dela eta, funtsezkoa da jakitea:

- **nola egiten duten lan ikastetxeko irakasleek,**
- **nolako irakasmoldea nahi duten,** horrenbestez orainaldia eta etorkizuna uztartuz (aurrerapen handiak egin daitezke, aldaketa txikiak eginez),
- **nolako erakunde mota, nolako hezkuntza-eredua** daukagun atzean, zer ikuspegi daukan Hezkuntza Sailak hezkuntza-jardunaz..., dirubideak eta irizpideak baldintzatzen baitituzte. Ez da ahaztu behar gure eginkizunetako bat dela, zuzenean nahiz zeharka, ikastetxearen gaineko erakundeekin mintzatzea. Eta, dirurik lortu nahi izanez gero,

trebeak izan behar dugu kudeatzen, ikastetxeari laguntzeko era dutenek ulertu eta lagun diezaguten.

Eredu hauen bidez, oinarrizko gailuen, ordenagailuen eta periferikoen berri izango dugu.

PCrik eta periferikorik aurreratuenen berri izateko, aldiz, nahikoa da edozein egunkari arakatzea edo informatika-produktuen web orrietara sartzea. Ez dugu konfigurazio zehatzik aipatu, hardware mota hori etengabe eguneratzeko.


## 2.IKASGELA MOTAK

Atal honetan gure lanaren eremu nagusirako, ikasgelarako, aukerak aztertuko ditugu. Ez dago eredu bat edo bi; hainbat eredu daude, orain ikusiko duzuenek, eta bakoitza baliabideen arabera egokitzen da, baina batik bat irakasmoldearen arabera. Batzuek ikasgela guztietarako irtenbideak proposatzen dituzte; beste batzuk, aldiz, lehenengotan teknologia- edo informatika-geletarako proposamenak izan ziren. Hona hemen:

**Ikasgelako txokoa.** Ordenagailu bakarra ikasgela bakoitzean. Tresna osagarri eta erabilera anitzekoa izaten da, ikasle batek edo lauk aldian-aldian erabil dezaten.

IKTak ikasgelan sartzeko lehenbiziko saioa izaten da, eta batik bat Haur Hezkuntzan eta Lehen Mailako Hezkuntzan erabiltzen da. Abiapuntu bikaina izan liteke proposatzen dugun hurrengo eredurako; izan ere, eredu horrek jaso egiten du ikasgelako txokoaren aukera, baina diru gehiago erabilia.

**Arbel digitaleko ikasgela.** Betiko ikasgela da, baina errefortzu bat erabilia. Gaur egun oso aukera merkea da. Irakaslerik klasikoaren beldurra ere aienarazi egiten ditu, eta aukeraz beteriko mundu bat erakusten digu.




Edozein irakasle-estilorako egokia da, hasieran talde handiko edozein jardura diskurtsiboren errefortzu gisa erabil daiteke, eta oso eroso da irakasleentzat.

Oinarrizko baliabideak:

- Ordenagailua (ikasgelako txokoa bera izan daiteke, eta hala erabil daiteke, «ikastaldearen leihoa» itxiz gero). Askotan arbela mugikorra da (ez dago ikasgela guztietan), eta halakoetan ordenagailu eramangarriak erabiltzen dira.
- Arbel digitala (proiektagailua)
- Arbel elkarreragilea, aukeran

**Ikasgelari, osagarri gisa, ohiko baliabide guztiak eskaintzen zaizkio ordenagailuan bildurik (musika-ekipoa, diapositiba-proiektagailua, DVDa...), eta bultzagarri da, maisuaren betiko lezioaz gain, beste aukera didaktiko asko erabiltzeko edo horien errefortzu egiteko. Argibideak: <http://dewey.uab.es/pmarques/pdigital/es/propuest.htm>**



**Talde-lanerako gelak** (ordenagailudunak). Irudi honetan talde-dinamikaren egitura ageri da, irakaslearen narrazio-jardunak sostengaturik. Irakasleak arbel digitala du lagungarri, eta ikasleek, launaka edo bosnaka jarrita, ordenagailuak erabiltzen dituzte.

Bistan denez, taldeko rolak banatu behar dira... Ordenagailua osagarri garrantzitsua da, baina ez zaio neurritz gaindik garrantzirik eman behar. Gaur egun gastuak ez dira hain handiak, proiektuak lan eginez gero.

**Taula digitalizatzaile bat gehituta, merke-merkea, ikasle bakoitzak parte hartu ahal izango du arbelean, jarlekutik altxatu gabe.**

Eta oraingo monitoreak lehengo zaharrak baino hamar aldiz estuagoak dira...


**Teknologia-gelak** (lehen informatika-gelak). Ikusiko dugunez, hainbat motatakoak izan daitezke. Lehenbizikoa, egun garrantzitsuen agian, ikusi berri dugun ikasgelaren eboluzioa da, teknologia lantzeko soilik erabilia:



**A- Talde-lana.** Antolaera egokia dauka elkarlanean aritzeko eta komunikatzeko ikasle taldeen eta irakaslearen artean. Altzariak berriaz diseinatu dira (Althia modeloa, Gaztela-Mantxako gobernuak).

**Webquestak, altxor-bilaketak...** prestatu. Antolaera aproposa da: jardueraren ardatza ordenagailua da, baina ikasleekin elkarlanean.

Ikasgela horietako bat opari zoragarria izan liteke zuen ikastetxerako.



**B-«Maisuaren lezioa» ikasgela.** Irakasleak ezin ikus dezake zer dagoen pantailetan.

Eskeman, arbel digitalaren errefortzuarekin ageri da.



Argazkian ikasgelarik ezagunena duzue, oso baldintzatuta pedagogia-ereduagatik nahiz instalazio elektrikoagatik edo sareagatik.



Ikasgelako PCak **binaka aritzeko** antolatuta daude. Ikasleen arteko komunikazioa eta lana sustatzen ditu.

C- U formako gela. Antolaera hau ere oso zabaldua dago. Irakasleak **pantailak kontrola ditzake** softwareerik erabili gabe...



Eta softwarearen baten bidez, ikasleen pantailak ikusi edo haiekin informazioa trukatu ahal izango bagenu, zalantzarik izanez gero...? Bada, IKT gelak kudeatzeko programa batzuek aukera horiek eta beste asko ere eskaintzen dituzte.



D- Badago beste aukera berritzaile bat, guztiz bestelakoa, **Ikasgela eramangarria**: ordenagailuak, inprimagailua, eskanerra eta haririk gabeko ataka bat edozein ikasgelatara garraiatzeko; adibidez, irudiko hau, Lasarteko Berritzegunean.

Bururatzen al zaizu beste antolaerarik? Oraingoz badugu nahikoa informazio ikasgelaren antolaerari buruz... Argia, errezelak, kokapenak... aipagai ditugu eranskinetan.

Orain azter dezagun ikastetxea, biziaren erdigune den aldetik.

### 3. AZPIEGITUREN BANAKETA IKASTETXEAN

Ikastetxearen ekipamendua bezain garrantzizkoa da nola banatuko den erabakitzea, inbertsioari ahalik eta atarramenturik handiena ateratzeko, ekipoak etengabe, denen artean eta eraz erabiliz.

Askotan diseinua, gutxi gorabehera, ezarrita dago. Gaur egun administrazioek poliki zaintzen dute alderdi hori, eta, aholkulari onak tarteko, oinarri-oinarrizko baldintzak betetzen dituzte.

Ikus dezagun zer beharrian dauden betetik eta zein ez (gehienetan ezin bete daitezke premia guztiak). Ahalegindu behar dugu ekintza bakoitza ahalik eta gehien aprobetxatzen.

Pere Marqués-en iritzia geure eginda, baina administrazio guztien jokabidea kontuan izanda, lehenengo ikastetxeak ekipoz hornitu eta gero ikasgelei erreparatzen baitiete, gune hauek ditugu:

- **Ikastetxeko administrazioaren aretoak** (idazkaritza, administrazioa, zuzendaritza, ikasketaburuaren gela, eskolaz kanpoko jarduerak, GE...). Programa orokorrak erabiltzen dira, bai eta **askotariko kudeaketa-programak** ere.
- **Departamentuak, irakasle-gelak...** Irakasleek lan-tresna dituzte ordenagailuak: tutoretzak egiteko, oharrak hartzeko, informazioa kontsultatzeko, komunikatzeko...
- **Ikasgelak.** Irakaslearen edo/eta ikasleen azalpenen sostengagarri erabiltzen dira, lan-txoko edo informazio-iturri gisa. Ordenagailu bat edo gehiago egon daitezke (ikus aurreko ikasgelen eskemak).
- **Gela bereziak.** Ordenagailuen kopurua aldakorra da (oro har, 15-25), eta prestatuta dago ikastalde osoak (batzuetan ikasleen erdiek) jardun dezan, irakasleak gidaturik. Dena den, sarri askotan badirudi irakasle jakin batzuek berenganatu dituztela. Kontuan izan behar dugu **baliabide gutxi edukiz gero ezinbestekoa dela alde aurreko planifikazioa eta erabilgarritasuna**. Horiez gainera, informatika-gelei dagokienez, nahitaezkoa da gorabeherak konpontzeko nolako edo halako trebetasuna izatea.
- **Liburutegia eta ikasteko gela balio anitzekoak.** Ikastetxe batzuetan, eskola-orduetatik kanpo ere zabalik egoten dira, ikasleek ordenagailuak erabil ditzaten. Irakasleek eta ikastaldek ere erabiltzeko era izaten dute, beharrezkoa denean, segurutik alde aurretik erreserba eginda.

Ikastetxeko ikasle/ordua ratioa aise kalkula daiteke. Irakasleen esku dago banaketa bidezkoa izatea. Zuek lagundu beharko diezue lankideei, ausart daitezten; eta ikasleei, aukera berak izan ditzaten.

Nolanahi ere, ikasleek, segurutik, guk baino trebetasun handiagoa eta esperientzia zabalagoa izango dute ordenagailuarekin. Zentzuzkoa da ikastetxeko lan-eremuak hedatzea, etxean ordenagailua dutenen eta ez dutenen arteko berdintasuna bermatzeko. Eta pedagogia-goiburu nagusiari jarraituz gero, **Ikasten irakatsi, ez hainbeste jakiten**, ondorio logikoa da gure lehentasunari, ikasleari, bitartekoak ematea, behar bezala gidaturik, bere prestakuntza eskura dezan.

### **Praktika**

Zure ikastetxeko Premia arduradunarekin komentatu eta ikastetxeko azpiegituren txosten/inbentario bat egin, honako eskema jarraituz:

- Sare motak.
- Ordenagailuen kopurua eta ezaugarri nagusiak (ez dira bana-banaka zehaztu behar, modeloen izenak eta ezaugarri nagusiak baizik –lagungarria da ekipamenduaren antzintasunari antzemateko).
- Ikastetxeko periferikoak.
- Kokapena.

### **Jarduera orokorra**

#### **NORBERAREN AMETSETAKO IKASTETXE EGOKIA (NORBERAREN LANTOKIA)**

Beste jarduera bat hasiko dugu. Oso berezia eta pertsonala. Amets egin beharko duzue orain, irudimenari jareginda, sor dezakezuenaz, eska dezakezuenaz, baita egungo baliabideak erabiliz egin dezakezuenaz ere. Jarduera honetan ez dizuegu lagunduko, beraz. Ikasgelen hainbat antolaera eta ikastetxeko gune nagusiak ikusi dituzue. Orain zeuen txanda da. Oraingo amets egin, baina... plan ona izanez gero, ez dago ezin daitekeenik teknologia berrien arloan.

Badakizue, adibidez, ordenagailuaren txokoa duten ikasgelek ez dutela musika-aparaturik behar, betiko diapositiba-proiektagailua ordenagailurik ez dagoen geletan erabil daitekeela... Funtsezkoa da ikuspegi orokorra izatea: baliabide batzuk beste batzuen osagarri izan daitezke, eta, horrenbestez, haien ahalbideak areagotu... Ikastetxe publikoetakoek konponduta dituzue arazo gehienak: sareak, hardwarea, softwarearen parte nagusiak... Horri guztiari probetxurik handiena atera beharko zaio, baita beste baliabide guztiei ere.

Praktika amaitu eta gero, edonorekin mintzatu ahal izango zarete, lankideekin berekin ere, nolako ekipoak eta zenbat nahi dituzuen jakingo baituzue.

Eta, horrela, urratsez urrats aurrera egin daiteke administrazioekin, gurasoen elkarrekin, ikastetxeko zuzendaritzarekin edo auzo-elkarrekin batera, ikastetxea baliabide egokiz hornitzeko, XXI. mendearen hasierari dagokionez.

Ez da ameskeria, egiaz erraz lor daiteke eta; gutizia ere ez da, ahalik eta eraginkortasunik handienarekin lan egiteko beharrezko tresnak baizik.

Bi alderdi hauek aintzat hartu:

- IKT ikasgelaren «ergonomia». Askotan ez zaio behar adinako garrantzirik ematen azpiegiturak ondo profitatzeko behar den integrazioari. Esate baterako, gimnasioan ez dira inola ere nahasten koltxonetak eta horma-barrak idazmahaiarekin eta mahai-jokoekin. Bestela, adibide burugabe horretan, Gorputz Heziketako irakaslea kexu izango litzateke, eremua ez dagoelako ondo antolatuta eta, hortaz, ezin delako behar bezala aritu.
- Dinamizatzailerik iaioena ez da, adibidez, ikasgela eredu bakarra erabiltzen duena, baizik eta ereduak nahasteko trebetasuna duena, irakasle eta ikasleak pozik egon

daitezen eta ahalik eta erosoan lan egin dezaten. **Izan zaitezte eklektikoak proposamenetan.**

Edozelan ere, pentsatu nabigatzeko edo testu-prozesadoreak erabiltzeko aski izan daitezkeela hardware zaharkitu horiek, agian software librea erabiliz. Azken batean, helburua lortzeko balio badu...

Konturatu al zarete zer baliabide erabili ziren llargira iristeko? Irudia ikusita eta irakurrita, ohartuko zineten, agian, zuen ekipo zaharretako batzuk oraindik erabil daitezkeela, nola edo non erabili jakinez gero (testu-prozesadore hutsa, nabigatzailea... erabiltzeko).

Unitatean aztertutako ekarpenak eta ikastetxearen egoera aintzat harturik, foroan proposa itzazu ekimenen bat, ikastetxean IKTen erabilera didaktikoa zabaltzeko (ikus «Ikasgela motak» atala).

Adierazi zure iritzia unitatearen foroan, eta ikaskideenak irakurri eta iruzkindu.